

# PEKATARIYARI.

¿Noiz zera pekatariya,  
Noiz zera zentzatuko?  
¿Noiz zera zure animaz  
Noiz zera oroituko?  
Jakizu etziñala izan  
Egiña mundurako:  
Garbitu zaitea, bada,  
Zure azken konturako.

## Kantartea.

*Lenbait-len biur zaite*  
*Zure Jaunagana:*  
*Jakizu bera dala*  
*Epalle<sup>1</sup> zizena:*  
*Esamiñako ditu,*  
*Aurren ta azkena;*  
*Ez dakizu noiz bear*  
*Dezun juan argana.*

Beretzat zinduan egiñ  
Guziyen Jaun Jabeak;  
Eskeintzen dizkitzu Berak  
Zori on neur-gabeak:  
Entzuten ezpadiyogu,  
¡A gure doakabeak!  
Etsayak, gu galdu nairik,  
Prest daukazki sareak.

*Lenbait-len biur etc.*

Begira gal-ez ditzatzun  
Betiko atsegiñak;  
Mendera-itzatzu laster  
Naikunde biyurriyak;<sup>2</sup>  
Bertatik arduraz ezi  
Pekaturako griñak;  
Kristaua, egiñ onetan  
Zintzoro alegiñak.

*Lenbait-len biur etc.*

Jar zaite utzi zenduban  
Jaun Aundi Onagana;  
Egizu barren-barrendik  
Pekatubaz negarra,  
Aldendu<sup>3</sup> nai badituzu  
Betiko su ta garra:  
Ar-zazu Jesusek eman  
Nai lukean laztana.

*Lenbait-len biur etc.*

ORKAIZTEGI-KO PATRIZIO-K

(1) Epallea: erabakitzallea; jueza.—(2) Naikunde biyurriyak—Gogo gaizto, pasiyo errebesak. (3) Aldendu—Urrutiratu: apartatu; aldetik kendu.